

# Fun lovin' criminals



## % 100 newyorktarra

Fun lovin' criminals, New York hirian azkenaldian sortu den funk-pop talde interesgarrienetakoa, Euskal Herrian izango da asteburu honetan; Gasteizko El Elefante Blanco aretoan, hain zuzen ere. Fun lovin' criminals bere bigarren CDa aurkeztera dator: **100 % Colombian**. Soulez, hip hopez, popez eta batez ere 70eko hamarkadako funk espirituz jantziriko lana da. Atzera egiten badugu, ohartuko gara Fun lovin' criminals lehenengo urratsak bitxiak izan zirela. Taldeko gitarra jole eta abeslari Hueyk azaldu duenez, Limelight izeneko klub baten inguruan mugitzen ziren taldeko hiru partaide-

ak, eta han sortu zen guztia: "Nik tabernan egiten nuen lan, Fastek telefono deiak erantzuten zituen, eta Steve tabernan egoten zen alkoholiko bat zen. Elkar ezagutu genuen eta behin, lagun baten urtebetetze jaian geundela, jo-

Hitzek lapurretak, hilketak edo polizia jazarpenak dituzte hizpide

tzen hasi ginen.

Jendea gustura zegoen gurekin, eta lokalaren jabeak esan zigun talderen batek huts egiten bazuen gu izango ginela ordezkioak, guri ordaindu beharrik ez zeukalako. Sei kontzertu eskaini genituen han, eta haiek amaitu

ondoren, EMI disketxeko ordezkari bat etorri zitzaigun disko bat grabatzeko proposamenarekin. Oso gustura erantzun genion baietz".

Dirudienez, Limeligheten elkartu aurretik, Fastek hamabost urte igaro zituen espetxean, eta Steve, berriz, basozain aritu zen Alaskan. Lehendabizikoaren esperientziak, antza, eragina izan du Fun lovin' criminals hitzetan; izan ere, taldearen abestiak lapurretaz, hilketat, polizia jazarpenez eta mafiosoz beteta daude.

Taldearen lehenengo diskoan -*Come find yourself* (1996)- jada azaltzen ziren taldearen ezaugarri nagusiak; nahikoa hitz makarrak eta hip-hop, rock eta funk doinuak. Bi urte geroago, 1998an, bigarren lana kaleratu zuen taldeak: **100 % Colombian** entzutetsua. "Kolonbiar hitza zerbait ona dela adierazteko erabiltzen dugu, eta oso-oso ona bada, orduan % 100ean da kolonbiarra. Bada, kit jende askok drogaren gaiarekin lotzen duela, baina Websterrekin [EEBBetako telebistako haur aktore bat] oheratzen naizela esaten ez duten bitartean, ez zait axola", dio Hueyk izenburuari buruz. Dena dela, Kolonbiako Gobernuari ez ei zaio askorik gustatu herrialde horri egingandako aipamena.

**100 % Colombian** diskoan baretu egin dute beren musika, eta zenbait funk-rock eraso badira ere, soula nagusitu da, hip-hoparekin batera. Soul dotorea da, gauean entzun beharrekoa, eta badu lizuntasun ukitu bat ere; batez ere Barry White 70eko hamarkadako funk kantaria *Love unlimited* abestian omentzen dutenean. Aipatzekoa da, halaber, BB Kingek bere gitarra jotzen duela diskoari agur esaten dion *Mini bar blues* abestian.

Fun lovin' criminalsek igandean joko du Gasteizko El Elefante blanco aretoan. ■ mikel lizarralde

mikel lizarralde

Mallorca toki eguzkitsua da, alemaniarrek kolonizatu duten udako paradisu bat. Agian eguraldiak lagunduta, uharte horretatik eta ingurukoetatik ateratzen diren talde askok pop garbia, distiratsua eta alaia egiten dute. Orain dela urte batzuk Los Valendas izan zen uharteen ordezkari nagusia, azken aldian Sunflowers indarrez azaldu da, eta bien artean Sexy Sadie egon da, bihar (ostirala) Donostiako Gazteszena aretoan joko duen taldea.

Pop garbia eta distiratsua aipatu dugu. Eta erromantikoa gaineratu beharko genuke Sexy Sadieren kasuan. Taldearen azken diskoaren izenburuak -*It's beautiful, it's love*- adierazten duen legez, maitasuna helarazten baitute kantu asko eta askok.

Beti ez da horrela izan, ordea. Gaur egun, poperako joera nagusitzen bada ere talde barruan, orain dela bi urte Sexy Sadiek beste norabide bat hartuko zuela pentsa zitekeen. Big

## Sexy Sadie Pop klasizismoa



Toxic, elektronikaren eta nahasketen alorrean lan egin duen musikariak, taldearen *Onion soup* diskoaren nahasketa egin zuen 1997an eta Mallorcako taldea esperimentazio elek-

tronikoaren bidean sartu zuen. *Onion soup triturated by Big Toxic* lanak oihartzun handia izan zuen -bere jatorrian zegoen diskoak baino gehiago-, eta gainera, lehenengo al-

diz, formazio klasikoko talde bat artista elektronikoko batekin elkartu zen zuzeneko kontzertuetan. Sexy Sadiek eta Big Toxicen elkarrekin egin zuten bira, eta iazko Festimad jaialdian, adibidez, Mallorcako taldeak bi kontzertu eskaini zituen. Bat Big Toxicen eta bestea disko berria izango zena aurkezten.

Disko berrian elektronikari agur esan diote, modu agerian behintzat. Taldekideek azaldu dutenez, Onion soup-en jarraipen logikoa da *It's beautiful, it's love*: "Ez dut uste jendeak Big Toxicen egingakoaren jarraipena espero zuenik. Beharbada fusio pixka bat bai, baina geure esparrura eramanda. *Onion soup triturated*... bidearen albo batera egingako jauzi bat baino ez zen izan".

Lan berrian pop klasikoaren arrastoak askoz nabariagoak dira, besteak beste *A brand new love*, *Stay behind me* eta *May* abestietan. Horiek eta dagoeneko oso ezagun egin diren beste kantu batzuk -*Mr. Nobody*, *In the water*- entzungo dira Donostiako kontzertuan.